
4.4. GAZTEOLINPIADAK

Deskribapena

Gazteak kirolean aritzen direnean gizartean parte-hartzen ari dira. Ongizate fisikoaz haratago, kirola sozializazio eta barne-hartze soziala ahalbidetzen dituen baliabidea da. Gazteak, taldean eta helburu bera lortu nahian antolatu egiten dira, beraien bizitzetan eta inguruan eragiten. Kirola ekintza bat ez ezik prozesu bat ere da, bertan taldearen osaketarako beharrezkoak diren hainbat elementu garatzen direlako. Hala nola, taldearekiko konpromisoa, hobetzeko grina, eta abar.

2015ean EGK-k kirola eta parte-hartze sozialaren arteko lotura aztertu eta balioan jartzeko GazteOlinpiadak jarri zituen martxan. Bilbo, Gasteiz eta Donostian egin ziren ekintzak ia 200 gazte batu zituzten.

2016an, berriz, Bilbon egin ziren GazteOlinpiadak, gazte guztientzako ekintza barne-hartzaileekin. Ekitaldia gazteen proposamenak jasotzeko baliatu zen, eta 72 ekarpen jaso ziren guztira, ondoren txosten baten aurkeztu direnak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Kirola bitarte, gazteen parte-hartzea sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK ezagutaraztea.
- Gazteen ideiak eta proposamenak jasotzea.
- Gazte guztientzako jarduera barne-hartzailea antolatzea.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Etorkizunean GazteOlinpiaden eragile izango de gazte-taldea sortzea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Lantaldearekin antolaketa kudeatu.

GazteOlinpiadak.

Gazteen proposamenak landu eta txostena prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Gazteak, oro har.
- Kirol taldeak.
- Astialdi taldeak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Parte hartu duten gazteen kopurua.
  - Parte hartu duten gazteen aniztasuna.
  - Jasotako proposamenen balioa.

4.5. GAZTEZTABAIDA

#GaztEztabaida

Deskribapena

2015ean eta 2016an gazteen parte hartze politikoa sustatzeko antolatu zen ekimena da GaztEztabaida. Urte horietan, hauteskundeak egon ziren, eta gazteek politikarien proposamenak entzun eta eztabaidatzeko aukera izan zuten.

2016an GaztEztabaida UPV/EHUko Paraninfoan ospatu zen, areto nagusian, eta giroa formalegia izan zen, ez zen guztiz barne-hartzailea izan, izan ere, politikariak agertokian zeudelako, eta gazteak, nahiko urrun, besaulkietan; ez zen elkarrizketarako giro. Aurten hauteskunderik ez dagoela eta GaztEztabaida ospatuko den tokia aldatu beharra dagoela baliatuta, ekimenaren formatua goitik-behera aldatuko dugu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteen parte-hartze politikoa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen eta politikarien arteko harremana sustatzea ideien trukearen bidez.
- Legegintzaldirako egindako proposamen politikoak eztabaidatzea.
- Gazteei, dituzten proposamen, kritika eta galderak aurkezteko aukera ematea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

GaztEztabaidaren formatu berria diseinatu.
GaztEztabaida antolatu.
GaztEztabaida edo GaztEztabaidak ospatu.
Gazteen proposamenak landu eta txostena prestatu.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Politikariei beraien ideiak, beharrizanak zein proposamenak aurkeztu nahi dizkieten gazteak zein gazte elkarteak.
- Eztabaida politikoan interesa duten gazteak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Parte hartu duten gazteen kopurua.
- Parte hartu duten gazteen aniztasuna.
- Jasotako proposamenen balioa.

4.6. GAZTEEN PARTE HARTZERAKO LURRALDE KONTSEILUA

Deskribapena

Arabako Foru Aldundiaren eskaera erantzunez, Gazteon Parte-hartzerako Lurralde Kontseilua sortzea proposatzen da. Kontseiluaren xedea Arabako Foru Aldundiak proposatutako gazteria politiken kontrastea egitea da, eta kontraste hori gazteen ikuspegitik egingo da.

Honek dira Kontseilu honek izan beharreko ezaugarriak:

- Gazteen ikuspegitik Arabako Foru Aldundiaren politika publikoak aztertu, landu eta doikuntzak proposatu.

- Kontseilua kontraste agente izateaz gain, gazteek dituzten proposamenak helarazteko espazioa izatea.
- Bileren deialdiak 15 eguneko aurrerapenarekin egitea.
- Bileretan landu beharreko informazioa aldez aurretik, eta behintzat 7 eguneko epea errespetatuz gazteei helaraztea.

Helburua

Arabako Foru Aldundiak garatzen dituen gazteria politikak kontrastatuko dituen Lurralde Kontseilua sortzea.

Hartzaileak:

Profil anitzeko pertsona gazteek osatuko dute Kontseilua. Ezagutza ezberdinak izateaz gain, interesgarria litzateke egoera ezberdinak bizitzea (ikaslea, langabezian dagoen gaztea, lanean dagoen bat, berdintasun ikuspegia txertatuko duena...)

Horietaz gain, prozesuaren garapena nolakoa den aztertzeko eta behar den heinean laguntza eskaintzeko, EGK-ko parte-hartze teknikariak ere parte hartuko du Kontseiluan.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Gazteen parte-hartzerako kontseiluaren sorrera proposamena landu eta adostu.

Kontseiluaren sorrera kudeatu (gazte taldearen aukeraketa, deialdia, eta abar).

Kontseiluaren bilera (bi hilabetean behin).

Proiektuaren ebaluazioa.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak:

Profil anitzeko pertsona gazteek osatuko dute Kontseilua. Ezagutza ezberdinak izateaz gain, interesgarria litzateke egoera ezberdinak bizitzea (ikaslea, langabezian dagoen gaztea, lanean dagoen bat, berdintasun ikuspegia txertatuko duena...)

Horietaz gain, prozesuaren garapena nolakoa den aztertzeko eta behar den heinean laguntza eskaintzeko, EGK-ko parte-hartze teknikariak ere parte hartuko du Kontseiluan.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

EGK-k ezaugarri hauek kontuan izatea garrantzitsutzat jotzen ditu:

- Metodologia: kontseilua garatzeko erabili diren irizpideak berrikusi (bileren maiztasuna, informazioa jasotzeko epeak, eta abar).
- Erabilgarritasuna: kontseilua osatzen duten partaideen hausnarketa (Aldundiaren, gazteen eta EGKren ikuspegia kontuan izanda).
- Parte-hartzea sustatzeko onurak: kontseiluan parte hartuko duten gazteei onuraren bat eskaintzea edo nolabait eskerrak ematea; kredituak, formakuntza espezifikoren bat burutzeko baliabideak, eta abar.
- Proposamen orokorrak: Arabako Foru Aldundiaren nondik norakoen jarraipena egitea aldera, BOTHA buletinera harpidetzea gomendagarria litzateke, baliabide gisa.

4.7. EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZA PROGRAMA



Deskribapena

Euskadiko Gazteak Lankidetza programaren hautaketa batzordeko kide izateak dakartzan betebeharrak betetzea.

- EGKren deialdian parte hartu duten pertsonen lehen hautaketa egitea.
- Lehenengo hautaketa gainditu dutenekin egingo diren informazio eta hautaketa jardunaldietan parte-hartze aktiboa izatea.
- Kooperazio proiektuak burutu ostean, esperientziaren ebaluazioan parte-hartzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Kooperazio proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak hastea.
- Euskal Herriko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

- Lehen hautaketa egiteko jardunaldia.
- Hautaketa jardunaldiak.
- Informazio jardunaldiak.
- Ebaluazio jardunaldiak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Euskadiko gazteak eta Euskadin bertan bizi direnak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Eusko Jaurlaritzak proposatutakoak.
- Egindako kontaktu gazteekin lortutako harreman maila.

4.8. GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA

Deskribapena

Parte Hartze teknikaria Deustuko Unibertsitateko Gizarte Aldaketarako Herritartasuna irakasgaian lankide izateko eskaera jaso dugu. Lana: 5 ikasle aholkatzea herritarren parte-hartzearen inguruko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko unibertsitateko 5 ikasle aholkatzea herritarren parte-hartzearen inguruko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzen.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak hastea.
- Euskal Herriko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Ikasle taldearekin zein irakasleekin bildu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Deustuko Unibertsitatean Gizarte Aldaketarako Herritartasuna irakasgaia ikasten duten ikasleak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Ikasle taldearen eta irakasleen *feedback*-a.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

4.9. MATERIAL ETA GELEN MAILEGUA

Deskribapena

Material eta gelen mailegua EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien zerbitzuetariko bat da.

Eskaerak jasotakoan, ezarritako prozedura estandarizatua jarraitu behar da materiala zein gela lagatzeko. Parte-hartze teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu behar da EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteei eta gazteen elkarteei laguntzea materialak eta gelak lagata.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Lagapen eskariak daudenean.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hartzaileak

- Euskadiko gazteak eta Euskadin bizi direnak.
- Gazteen elkarteak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Egotekotan, eman diren koordinazio edo barne-komunikazio arazoak aztertuta protokoloaren efizientzia ebaluatzea.
- Lagapenen kopurua aurreko urteetakoekin alderatu.
- Mailegu hartzaileekin harremana materiala edo gelaren lagapenetik haratago doan behatu.

4.10. AHOLKULARITZA

Deskribapena

Parte-hartze teknikariaren eguneroko lanetariko bat da; gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

Aldi berean, garrantzitsua da, ahal den heinean, sare ezberdinetan parte hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Sare ezberdinetan parte hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Aholkulari lana.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Gazteen elkarteak.
- Gazteak, oro har.
- Administrazio publikoak, enpresak eta bestelako erakundeak, gazteriarekin zerikusia duten heinean.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia izango dira. EGKren parte ez diren elkarte eta eragileekin egindako kontaktua, eta, harreman horien bilakaera ere baloratuko da.

4.11. EGUNEROKOTASUNA

Deskribapena

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne- nahiz kanpo-koordinaziorako bilerak, hala nola, ager daitezkeen

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, parte-hartze arloaren kasuan, honen zeharkakotasuna dela eta, EGK-ko gainontzeko lan-arloekin izan beharreko koordinazio ia etengabea da, kanpoko elkarte, eragile, administrazio eta abarrekin bezala.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko beste lan arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste lan arloei gazteen parte-hartzearekin lagundu.
- Urteko plangintza eta memoria egin.
- Hedabideetan agertu hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte-hartu.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Urteko plangintza prestatu.
Bilerak.
Memoria egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hartzaileak

- EGK.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta elkarteak.
- EGK-tik kanpo dauden elkarteak, administrazio publikoak eta bestelako eragileak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

Plangintza eta koordinazioaren eraginkortasuna ebaluatu da.

5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

2017 urtea inflexio puntu bat izango da EGK-ko Bakea eta Bizikidetza lan-arlorako. Alde batetik, urte hasieran, 2014 eta 2016 bitarte Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako lan hitzarmenaren baitan egindako proiektuen ondorioak aurkeztuko dira. Eta bestetik, gaur egungo testuingurura egokituko den lan hitzarmen berriaren helburu eta lan ildoak definitzeke daude. Beraz, hitz gutxietan, bi urte luzeetan egin den lanaren itxiera egokia eta etapa berri baten oinarri sendoak finkatzea izango dira 2017ko lan-arlo honen erronka nagusiak.

5.1. GIDALIBURUA+PROPOSAMENAK EUSKARAZKO BERTSIOA

Deskribapena

Lan hitzarmenaren baitan gazteekin garatutako proiektuetan lortutako ondorioekin gidaliburu bat egin da. Dokumentuaren luzera dela eta, 2016ean gaztelaniaz soilik egiteko denbora eman zuen. Beraz, aurten, eta martxoan egingo den zabalpen publikoari begira, dokumentua euskaratzeko tartea hartu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Bi urtetan bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinetan jasotako guztia euskaraz ere izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bi urtetan bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinetan jasotako guztia gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.
- Beste erakunde edo eragileek B&B lantzeko orduan erreferentziazko txostentzat hartzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Gaztelaniazko bertsioa itzultzera bidali eta berrikusi.

Maketazioa egin eta inprimatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Gizartea
- Komunikabideak
- Instituzio-Administrazioa
- Jendartea eta gazteria bereziki

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Zehaztutako ekintzak epearen baitan gauzatzea.
- Gidaliburuaren inprimaketa maketatu den bezala izatea.

5.2. GIDALIBURUA ETA DOKUMENTALAREN ZABALPENA

Deskribapena

Bi urte luze hauetan, lan hitzarmenaren baitan burututako proiektuetan gazteek egindako ekarpenak instituzioei, komunikabideei eta gizarteari helarazteko helburuarekin bi material pedagogiko prestatu dira: gidaliburua eta dokumentala. Material hauen zabalpena egiteko hainbat bide erabiliko dira. Horien artean garrantzitsuena martxoan egingo den aurkezpen publikoa izango da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bi urtetan bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinetan jasotako guztia gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinak gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.
- Gazteok bakegintza prozesuan protagonistak garela eta zer esan badugula sinetsaraztea.
- Ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortu.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Talde tekniko eta batzorde iraunkorrari dokumentala aurkeztu, hauek ikuskatu eta euren ekarpenak egin ditzaten.

Zabalpen plana zehaztu eta burutu. Aurkezpen publikoa antolatu.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Gidaliburuaren eta dokumentalaren aurkezpen publikoa

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Gizartea
- Komunikabideak
- Instituzioak
- Jendartea eta gazteria bereziki

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Aurkezpen publikoa burutzea.
- Bai gidaliburua eta bai dokumentala erakargarria eta interesgarria bilakatzea.
- Komunikabideek aurkezpenaren berri ematea.
- Gonbidatutako eragile gehienak etortzea.
- Gazteak gidaliburuan jasotzen diren hausnarketekin identifikatzea.
- Bai gidaliburua bai dokumentalean jasotzen diren ekarpenak bakegintza eta bizikidetza politiketan eragina izatea.
- Gazte gehiago EGK-k burutzen dituen bakea eta bizikidetza proiektuetan parte-hartzea.

5.3. BAKE LANTALDEA

Deskribapena

2015ean sortutako lantaldeari jarraipena emateko, 2017an talde honetara gehitzeko deialdia zabalduko da. Hala ere, lan hitzarmen berriaren helburuak eta lan ildoak definitu arte, zehazteke daude zeintzuk izango diren lantaldearen egiteko berriak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Lan-arloko erronka eta proposamen berriekin bat joango diren diskurtsoen egituraketan laguntzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2015ean sortu zen lantaldeari jarraipena ematea eta gazte gehiago gerturatzea.
- Gazteok B&Bn gainean ditugun proposamenak eztabaidatu eta identifikatzea.
- Gazteok B&B esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.
- Gazteok bakegintza prozesuan protagonistak garela eta zer esan badugula sinetsaraztea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Bake lantaldera gehitzeko deialdia.

Saioen prestaketa eta garatzea.

Ebaluazioa

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- EAEko gazteria

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Lantaldeari gazteak gehitzea.
- Urtean zehar hilero saio bana mantentzea.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Lantaldean parte-hartzen duten gazteen profila anitza izatea.
- Lantaldean parte-hartzen duten gazteak gustura etortzea.
- Lantaldearen proposamenen kalitatea.
- Lantaldearen proposamenen oihartzuna.

5.4. HITZARMENAREN BAITAN GARATUKO DEN PROPOSAMENAREN DEFINIZIOA

Deskribapena

EJko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari esker, 2014ean, EGK-k lan-arlo hau berreskuratu egin zuen. Honen jarraipena bermatzeko, 2017an ere lan hitzarmen berri bat sinatzeko aukerak bilatuko dira. Elkarlan horren baitan, lehenik eta behin, hitzarmenaren helburuak eta lan-ildoak definitzea izango da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bakea eta Bizikidetza lan-arloaren ildo berriak definitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2017ko EJ eta EGKren arteko lan hitzarmena itxi. Hau da: irizpideak eta helburuak adostu eta lan ildoak, proiektu motak, lan eremuak zehaztu.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Ekintzak eta epeaK

EKINTZAK:

EJko Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritza nagusiarekin bilerak kudeatu eta hitzarmenerako data itxi.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hartzaileak

- EJko Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritza nagusia
- EGK-ko batzorde iraunkorra

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Lan hitzarmenaren helburuak eta lan ildoak zehazteko bilerak lotzea.
- Akordio batetara heltzea.
- Lan hitzarmena sinatzea.
- Lan-arloa mantentzea.

5.5. BAKE TEKNIKARIAREN LAN DEIALDIA

Deskribapena

2017an Bakea eta Bizikidetza teknikariak 30 urte dituenez, lan deialdiaren kudeaketa, hautaketa prozesua eta lekukoa egin beharko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bake teknikari berria aukeratu eta lan-arloaren jarraitutasuna ziurtatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bake teknikaria ordezkatzeko lan deialdiaren kudeaketa egin.
- Lekukoa egiteko beharrezkoak diren materialak prestatu.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Lan deialdiaren zabalpena eta teknikari berriaren hautaketa.

Lekukoa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hartzaileak

- EGK-ko talde teknikoa eta batzorde iraunkorra
- Gai hauetan formakuntza eta esperientzia duten EAEko gazteak

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Epeak betetzea.
- Hautaketa prozesuan adostasuna lortzea.
- Lekukoa egiteko material guztiak prest uztea.
- Lekukoa era egokian egitea.

5.6. 2017KO PROIEKTUAK

Deskribapena

Bakegintzarako eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin sinatzeke dagoen lan hitzarmenaren baitan adosteke dauden proiektuak eratu, antolatu, garatu eta ebaluatu.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Hitzarmenaren baitan adostutako proiektuak gauzatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- EAEko gazteria

5.7. EGUNEROKOTASUNA

Deskribapena

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanak kontutan izan behar dira, lan-arloko egunerokotasunean eragina baitute. Besteak beste: bilerak, aholkularitza, egoitzako kudeaketa lanak, urteko

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

proiektuen justifikazioa, 2017ko memoriak eta 2018ko plangintza.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko izaera eta funtzionamendua bermatzen duten eguneroko lanak burutu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren barne koordinazioan lagundu.
- Plangintza, Memoriak eta Hitzarmenak sortzen lagundu.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Egunerokotasunaren menpe dauden funtzioak: egoitzako kudeaketa lanak.

Talde, batzorde eta eragile ezberdinekin bilerak.

Urteko proiektuen justifikazioa.

2017ko memoriak eta 2018ko plangintza.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Lan talde teknikoa
- EGK-ko Batzorde Iraunkorra
- EJ-EGK-ko Jarraipen Batzordea
- EGK-ko elkarteak
- EAEko gazteak
- Gizartea
- Komunikabideak

- Beste eragile batzuk (ekimenaren araberakoak)

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Bake eta Bizikidetza lan-arloari egiten zaizkion eskaerei erantzun egokia eman.
- Lana hobetzeko egiten diren ekarpenak jaso eta lanean antzeman.
- Eguneroko lanak era egokian kudeatu.
- EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliogarriak diren balorazioak eman eta ekintzetan parte hartu.

6. BERDINTASUNA

2017 urtean helburu izango dira arlo honetan: lan-arloaren egonkortzea, Berdintasun arloan esanguratsuak diren eragileekin saretzea eta Berdintasunarekiko konpromisoa era estrategikoan bai EGKren barruan nahiz gazterian bertan garatzen hasteko prozesua.

Azken helburu honetarako, premiazkoa izango da Berdintasun Planaren onarpena eta hau martxan jartzea. Honen barruan, 2016an izan den bezala, emakume eta gizonen arteko eskubide eta askatasun berdintasuna eta LGTBI+ kolektiboaren eskubide eta askatasunaren defentsa egonik.

6.1. SEXUALITATEAREN KOLOREAK

Deskribapena

Gazteen beharrei eta helburuei nahiz hezitzaileen kezkei erantzuten dien eta sexologiaren marko teorikoan oinarritzen den Aniztasunari buruzko gidaren diseinua eta egituraketa egin da 2016aren azken hilabeteetan. Orain, ondorio izan den gidaren aurkezpena eta baliabideak ezagutzera ematea da egin beharrekoa; honen guztiaren diseinua Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinazioan egingo delarik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- "Sexualitatearen koloreak" gida eta bertako baliabideak aditzera ematea.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte nahiz aisialdiko hezitzaileen beharrei eta eskaerei erantzuten dien material didaktikoa gizarteratu.
- Baliabidearen erabilerari eta aniztasunari buruzko mintegia egin gidaren eta giden proiektuaren berri eman ahal izateko.
- 2017an aurreikusita dauden giden proiektuak aditzera eman eta bildumaren jarraitutasuna eta logika azaldu.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Gidaren diseinatzailearekin harremana mantendu azken aldaketak eta diseinu iradokizunak txertatzeko.

BFArekin noizbehinkako jarraipen bilerak.

Aurkezpen ekitaldiaren diseinua.

Aurkezpen ekitaldia burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- EGK-ko elkarteak, bereziki hezkuntzaren arloari lotuta daudenak.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Gidaren eraketan laguntzakoak izan diren eragile eta elkarte desberdinak, bereziki gazteekin lan egiten dutenak
- Gazteak eta hezitzaileak, bereziki Aniztasunaren arloan parte-hartzen dutenak edota proiektuak burutzen dituztenak.
- Berdintasun eta Aniztasunaren arloetako bestelako eragile nahiz entitateak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- EGK eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko koordinazioaren egokitasuna.
    - Aurretiaz ezarritako epeak betetzea.
    - Gidaren gizarteratzeko ekimenek izan duten inpaktua hedabideetan.
    - Gidaren sorreraren ondoriozko bestelako lan-ildoen eta elkarlan aukeren agerpena.

6.2. GAUR8

Deskribapena

2016an Berdintasun lan-arloaren lantaldea eratu zen. Lehenengo urte honetan partaidetza maila urtean zehar aldakorra izan zen eta hasieratik hobekuntzarako esparru desberdinak identifikatu ziren.

Adibidez, lantaldearen ahulezietako bat da Berdintasunaren esparrutik datozen elkartegintzako gazte eragileen falta. Honi dagokionez, elkartegintza feministan aktiboak diren gazte taldeekin harremanetan ezartzea eta hauek lantaldean parte-hartzera gonbidatzea da 2017ko erronka nagusia.

Gauzak horrela, lantaldeak aurreko urteko prozedura berdina jarraituko du. Bilera batetik besterako tartea hilabete ingurukoa izango da, uda moduko garaian epe luzeagoa utziz.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Lantaldearen zereginei begira, diskurtso berrien eraketa eta jada iraunkortasun bat duten proiektuen berrikuspenean zentratuko da ahalegina, EGKren diskurtsoa ahalik eta berritzaileena izan dadin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren Berdintasun arloko diskurtsoa eratu eta eguneratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Iraunkortasuna duten proiektuen diskurtsoaren eraketa.
- Berdintasun arloko erronka berrien identifikazioa eta proposamenen burutzea.
- Lan-ildoen definizioan eta proposamenen eraikuntzan laguntzea.
- Berdintasun arloan dauden gazte elkarteen arteko harreman sarea sendotzea.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Bilerak burutu.

Gaur8ren diskurtsoa EGKren proiektuetan txertatu.

Urteko ebaluazioa eta 2018rako proiektuen proposamenak jasotzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hartzaileak

- EGK eta hau eratzen duten elkarteak.
- Euskadiko gazteak.
- Administrazioak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Egindako bilera kopurua eta hauen partaidetza.
- Egindako bileren etekina eta lortutako diskurtsoen eraberritzea eta diskurtso berrien eraketa.
- Lortutako gazte nahiz eragile berrien kopurua eta jatorria (Berdintasun arlokoak diren edota Aniztasunaren arlokoak).

6.3. BERDINTASUN PROTOKOLOAK

Deskribapena

Berdintasunarekiko EGK-k hartu duen konpromisoa gizarte nahiz hedabide mailan aditzera emateko eta EGK-k Berdintasunaren aurka doazen Indarkerien aurrean duen diskurtsoaren eragina hobetzeko, 2016an salaketa publikorako Berdintasun Protokoloak diseinatu eta onartu egin ziren.

Onarpen osteko lehen udan jada protokoloek eragiten zituzten zailtasunak argi gelditu ziren. Izan ere, egun bereziki Indarkeria Matxistaren egoerak aldaketa bat izan badu da inoiz baino ikusgaiagoa den gai bat dela. Ondorioz, hedabideetan erasoen berri inoiz baino gehiago ematen dela.

Hau dela eta, EGK-k dituen beste protokolo batzuetan oinarritua zegoen Berdintasun Protokoloaren formula egoerari erantzuna emateko erarik egokiena ez zela argi gelditu zen kontuan izanda EGKren baliabideak. Ondorioz, 2016ko lana izango da protokoloen prozeduraren birdiseinua, hauen onarpena Batzar Orokorrean eta urteak aurrera jarraitu ahala protokoloen eredu berria erabiltzea.

Honekin batera, hortaz, 2016an protokoloen erabilera bera eta, egoerak hala eskatuko balu, eguneratzea, izango da beste zeregina. Gainera, jada 2016ko azaroaren 25ean egin

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

zen bezala, oroitzapenezko data egunetan egoeraren analisia baimentzen duen testu laburra argitaratuko da webgunean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasun Protokoloen funtzionamendua EGKren baliabideetara egokitu eta hauen erabilerarekin jarraitu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun Protokoloen aktibazio prozedura azkarragoa izatea eta webgunearen Albiste saila arintzea.
- Berdintasun Protokoloen eragina gaitasuna mantendu eta baita hobetzea ere.
- EGKren Berdintasunarekiko konpromisoa berresten jarraitzeko tresna hau erabiltzen jarraitu eta Indarkeria Matxista nahiz LGTBI+fobikoa salatzen jarraitu, gazte proposamenak oroituz.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Berdintasun Protokoloen birdiseinua.

Protokoloen egitura berriaren onarpena Batzorde Iraunkorraren eskutik.

Protokoloen egitura berriaren onarpena Batzar Orokorrean.

Protokoloen erabilera berria.

Protokoloen erabilerari buruzko urteko analisia.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Administrazio eta Berdintasun arloko eragile desberdinak.
- Hedabideak eta gizartea bera, orokorrean.
- Gazteria, konkretuki Euskadiko gazteak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Lantalde teknikoaren prozedura aldaketari buruzko urte bukaerako ebaluazioa.
- Hedabideetan izandako inpaktua.
- Legedi edo politika aldaketak egongo balira, gazteriaren proposamenek izandako isla.

6.4. EGK I. BERDINTASUN PLANA

Deskribapena

Berdintasunarekiko konpromisoa era eraginkorrean hartu nahi duen gizarte eraginerako edozein testuinguruk beharrezkoa du konpromisoa neurri eta proiektuetara itzultzea. Alegia, bere testuingurura egokitua dagoen eta bere inpaktua kontuan duen Berdintasun Plan bat egituratzea. Are gehiago espazio hau gainera lan eremu bat denean.

Hau dela eta, 2016an zehar EGKren I. Berdintasun Planaren diseinua burutu zen, honetan eragile desberdinak egon direlarik kontraste agente modura. Alde batetik, Gaur8 lantaldea egon da baina, bestetik, kanpo eragileak ere aurki ditzakegu: Jaume I Unibertsitatea eta Emakunde.

Diseinu atal hau buruturik,. 2017ko betebeharra izango da Plan hau onartua izatea Batzar Orokorrean eta bertan dauden 2017rako neurriak martxan jartzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasuna zeharkako balore gisa errotu EGKren barne nahiz kanpo lanean.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK lan eremu gisa ulerturik beharrezkoak dituen neurriak aurrera eraman, hauen artean egonik EGKren egitura bereziarengan arreta ezartzen duten neurriak.
- EGK-k duen eragile paperaren barruan beharrezkoak diren neurri zein proiektuak aurrera eraman.
- 2017ari dagokion neurrien eta hauen inpaktuaren ebaluazioa burutu.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Emakunderekin harremanetan aritu ekarpenak jaso eta txertatzeko.

Berdintasun Plana euskaratu.

Berdintasun Plana Batzar Orokorrean onartu.

Neurriak martxan jarri.

Lehen urtearen ebaluazioa burutu.

KRONOGRAMA:

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- EGK lan eremuko esparru bezala eta eragile bezala.
- Euskadiko gazteak kolektibo gisa.
- Administrazioak, Berdintasun arloko proposamenak jasoko baitituzte.
- Elkartegintzaren testuinguruan dauden EGKren antzeko egitura duten edota gazteriarekin lan egiten duten beste erakunde batzuk..

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Epemugak betetzea.
- Neurrien inpaktuaren balorazioa.
- Neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.
- Urte bukaerako ebaluazio osoa.

6.5. GUNE ANITZA

GUNE ANITZA

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Deskribapena

Berdintasun eta Aniztasunarekiko aldekotasuna erakusten duen zigilu hau EGKren Berdintasun arloko proiektu iraunkorretako bat izango da. Iraunkortasun hau baimentzeko edota bideratzeko, ez da soilik manifestuaren aldaketan esfortzua egingo.

Izan ere, 2017an Gune Anitza Zigiluak izango duen aldaketetako bat izango da, manifestua eta logoa berritzeaz gain, guneetarako gomendio gidak egitea eta zigilua galdu ahal izateko hutsen sistema egituratzea.

Garrantzizkoa da eragileek Berdintasun eta Aniztasunarekiko konpromisoa hartzen dutenean bere konplexutasunean aurre egin ahal izateko eta hau ez gelditzea borondate adierazpen huts batean. Hau ekiditeko, guneek kontuan izan beharreko hainbat gomendio eta jarraibide jasoko dituzten gidak eta guneek zigilua izatearen eskubidea galdu ahal izateko sistema eraikiko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasun eta Aniztasunarekiko aldekotasuna erakustea eta hauekiko gazteek dituzten proposamenak txertatzea gune desberdinetan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun eta Aniztasunarekiko aldekotasuna era positibo batean publikoki erakustea.
- Gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Gazteek dituzten proposamenak ere espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.
- Aldekotasuna borondate adierazpenetik haratago, neurri eta jarraibideetara itzuli.
- Gune Anitzei beraien baloreekin bat doazen praktikak burutzen lagundu.
- Guneen egokitzapena baloratu ahal izateko tresnak izatea, hala nola, beharrezkoa izanez gero, hauei duten zigiluaren eskubidea kentzeko kontrol neurriak ezarri.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

- Gune Anitzari dagokion manifestuaren eta dekalogoaren berritzea.
- Gune Anitza mota desberdinei egokitzen diren gomendio eta jarraibideen gidak idatzi.
- Zigilua izatearen eskubidea galdu ahal izateko kontrol neurrien diseinua.
- Gune Anitzaren egitura berria prestatu.
- Gune Anitzaren egitura berriaren aurkezpena.
- Gune Anitzen bilaketa aktiboa.

KRONOGRAMA:



Hartzaileak

- Euskadiko gazteria, bereziki Berdintasunarekiko eta Aniztasunarekiko konpromiso berezia duena.
- Gune Anitzera atxikitzen diren gune nahiz taldeak.

- Berdintasuna eta Aniztasunarekiko interesa duten guneak, bereziki gazteriarekin lan egiten dutenak.

6.6. RECACCIONA – BIDEO LEHIAKETA

Ikus. Komunika.

6.7. INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO KANPAINA

Deskribapena

Gazteak eta Berdintasun arloa esaldi berdinean elkartzerakoan ez da batere arraroa jendartean gazterian ematen den "Indarkeria Matxistaren" jazoera altuari buruzko kezka adierazpenak jasotzea erantzun gisa.

Egia izanik emakume gazteen artean beraien aurkako indarkerien salatzaile tasa altuagoa dela gainerako belaunaldiekin alderatuz, EGKtik datu honek izan ditzakeen alde positiboak eta negatiboak kontuan izan nahi dira, halaber, jada Berdintasunarekiko konprometitua dagoen gazteria balorean ezarri eta eredugarri egin.

Hortaz, kontuan izanik Indarkeria Matxista oraindik ere gazteriaren erronka bat dela eta honi aurre egin behar zaiola, honetaz kontzientziatzeko baina gazte proposamenetan eta beharretan ere oinarritua dagoen kanpaina osatzea da EGKren helburua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Indarkeria Matxista identifikatzen lagundu eta honi aurre egiteko tresnak gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Indarkeria Matxistari buruz kontzientziatu eta honen forma desberdinak ezagutzera eman.
- Gazteek dituzten aurre egiteko proposamenak eta eskura dituzten baliabide desberdinak gizarteratu eta aditzera eman.
- Gaztedian arazo honek duen pisua eta seriotasuna gazte diskurtso batetik aztertzea.
- EGK-k Indarkeria Matxistaren aurka lan egiten duen entitate gisa duen konpromisoa berretsi.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Eragile eta administrazio desberdinekin koordinazio bilerak.

Kanpainaren diseinua burutu.

Kanpainaren eraketa koordinatu eta honen aurkezpena prestatu.

Kanpainaren aurkezpena.

Kanpaina gogorarazteko eta gehiago gizarteratzeko ekimenak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Hartzaileak

- Euskadiko gazteak eta Euskadin bertan bizi direnak.
- Gazteekin lan egiten duten edozein motatako entitate nahiz eragileak.
- Gizartea orokorrean.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Lortutako eragile eta administrazio sarearen inplikazioa eta eragileen kopurua.
- Mezuen eraikuntzan izan den gazteriaren partaidetza.
- Lortutako inpaktu maila kanpainaren aurkezpenean.

6.8. SEXUALITATEA BERDINTASUNETIK

Deskribapena

Emakume eta gizonen artean dagoen desberdintasuna eta honek sortutako bereizketa egoerak bizitzaren esparru pribatuan ere islatzen dira. Gauzak horrela, desberdintasun hau ez da soilik indarkeria kasuak agertzen direnean soilik ematen, baita eremu pribatuaren egunerokotasunean ere.

"Pertsonala politikoa da" lelo feminista soberan ezaguna da, baina zein ondorio ditu honek? Zein desberdintasun bizi dituzten egungo emakume eta gizon gazteek beraien egunerokotasuneko harreman pribatuak garatzerakoan? Zein aurreiritzi eta rol mantentzen dira oraindik ere? Zein neurri har daitezke egoera hauen aurrean? Zein mailara arte emakume eta gizonen berdintasun eta askatasun eskubideak urratzen jarraitzen dira anakronikoak diren pentsamolde hauengatik?

Galdera hauei erantzuna ematea eta gazteek eraikitako proposamenak egitea da jardunaldi hauen helburu. Izan ere, ezinbestekoa da eskubide eta askatasun berdintasuna bizitza pribatuaren esparruan ahalik eta era zabalenean aztertzea, bereizketa desberdinek aurrera jarraitzea baimentzen duen sustraia berdina baita.

Helburuak

<u>HELBURU OROKORRA:</u>

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Berdintasunaren ikuspegitik sexualitatearen esparru anitz eta zabala gazte ikuspegi batetik aztertzea eta bizitzaren esparru pribatua ere berdintasunezkoa izan dadin egin daitezkeen proposamenak egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bizitzaren esparru pribatuan ere eskubide eta askatasunaren pisua balorean jarri.
- Gazteek antzematen dituzten desberdintasun eta bereizketa egoerei erreparatu eta hauei aurre egiteko proposamenak eraiki.
- Berdintasuna bizitza pribaturako balore gisa duen gaitasuna balorean jarri.

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Jardunaldien diseinua eta antolaketa.

Jardunaldien aurkezpena eta izen-emate epearen irekiera.

Jardunaldiak burutu.

Jardunaldien ondorioak aurkeztu eta proposamenak administrazioei helarazi.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- Euskadiko gazteak eta Euskadin bizi direnak
- EGK

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

- Administrazioak
- Berdintasun arloko elkartegintzako eragileak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Epeetara mugatzea.
- Lortutako asistentzia eta partaidetza nahiz proposamenen sakontasuna.
- Parte-hartzaileek adierazitako asetzea.
- Lortutako hedabideetako inpaktua.
- Lortutako eragile berriekiko sareak.

6.9. EGUNEROKOTASUNA

Deskribapena

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, hala nola, ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, Berdintasun lan-arloaren kasuan, bere zeharkakotasuna dela eta, esfortzu hau handiagoa izan daiteke, bereziki I Planaren barne neurriak ezartzen joan heinean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko beste lan arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste lan arloetako Berdintasun ikuspegiko ekarpenak egin.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.
- Hedabideetan agertu hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte-hartu.

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Ekintzak eta epeak

EKINTZAK:

Bilera mota desberdinak

Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

- EGK
- EGK-ko lantalde teknikoa eta elkarteak
- EGKtik kanpo dauden bestelako eragileak

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- Bilera kopurua
- Ezarritako Planeko neurrien eraginkortasuna
- Aurreikusita ez zeuden proiektu berrien kopurua

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

7. KOMUNIKAZIOA



2017 urtean helburu izango dira arlo honetan: lan-arloaren egonkortzea, Berdintasun arloan esanguratsuak diren eragileekin saretzea eta Berdintasunarekiko konpromisoa era estrategikoan bai EGKren barruan nahiz gazterian bertan garatzen hasteko prozesua.

Azken helburu honetarako, premiazkoa izango da Berdintasun Planaren onarpena eta hau martxan jartzea. Honen barruan, 2016an izan den bezala, emakume eta gizonen arteko eskubide eta askatasun berdintasuna eta LGTBI+ kolektiboaren eskubide eta askatasunaren defentsa egonik.

7.1. WWW.EGK.EUS WEBGUNEAREN KUDEAKETA

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Deskribapena

EGKren webgunea, www.egk.eus, elkarte plataformaren tresna eraginkorrena da lantalde teknikoak egiten duen lana islatzeko: lan-arlo bakoitzaren azken albisteak, lan deialdiak, antolatutako ekintza eta proiektuen berri eman, lantaldeen bilerak jakinarazi eta sortzen diren *produktuak* (bideoak, txostenak, etab.) publikatu.

Gazteen beharrei eta helburuei nahiz hezitzaileen kezkei erantzuten dien eta sexologiaren marko teorikoan oinarritzen den Aniztasunari buruzko gidaren diseinua eta egituraketa egin da 2016aren azken hilabeteetan. Orain, ondorio izan den gidaren aurkezpena eta baliabideak ezagutzera ematea da egin beharrekoa; honen guztiaren diseinua Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinazioan egingo delarik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k egiten duen lanaren berri eman
- EGK osatzen duten elkarteen berri eman
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldien berri eman

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- EGKren argitalpenak (berriak eta azken urteetan egindakoak) Interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea,webguneko agendan.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldi, proiektu edo egitasmoen berri ematea webguneko agendan
- Elkarteen zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

Ekintzak eta epeak

Webgunearen kudeaketa urte osoan zehar garatzen den lana da, hau da, albisteen atala EGKren eguneroko lanarekin hornitzea eta agendan EAEko gazteak protagonista dituen edo haientzat interesekoak diren ekitaldi, egitasmo edo proiektuak jasotzea egunero egin beharreko lanak dira. Horretaz gain, webguneak behar duen bezala erantzun dezan, komunikazio teknikariak optimizatu egingo du (albiste guztiek irudi optimizatuak izatea,

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

irisgarritasuna bermatzea erabiltzaile orori, SEO aholkuak jarraitu, etab.) Googlen kokapena hobetze aldera.

Bestetik, webgunean finkoagoak diren atalak (banerrak, elkarteen datuak, irudiak, etab.) bestelako maiztasun batekin berrituko dira. Honela erabiltzaileek jarraipen bat nabarituko dute (garrantzitsua webgunea berria dela ikusita), baina aldi berean kanpaina berezien berri izango dute. Honekin batera, txostenak ateratzen diren heinean webgunean eskegiko dira edonork ikus eta irakur ahal ditzan.

Hartzaileak

- 2016ko datuen arabera, EGKren webgunean bisita kopurua mantendu du: 25.000tik gora.
- Bisitarien adina
- Bisitarien generoa
- Bisita gehienak Bilbo, Donostia eta Gasteiztik eginak dira.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

- EGK eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko koordinazioaren egokitasuna.
- Aurretiaz ezarritako epeak betetzea.
- Gidaren gizarteratzeko ekimenek izan duten inpaktua hedabideetan.
- Gidaren sorreraren ondoriozko bestelako lan-ildoen eta elkarlan aukeren agerpena.

7.2. DISEINATZAILE GAZTEEN LAN POLTSA DEIALDIA

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Diseinatzaile gazteen lan-poltsa
Bolsa de trabajo de personas jóvenes diseñadoras

Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK)2017an izango dituen behar berezi batzuk aurreikusita, erakundeen plataformak diseinatzaile gazteen lan-poltsa deialdia egingo du berriro ere. 2016an bezala, egunerokoan sortzen diren behar guztiei erantzuteko denbora faltagatik, diseinatzaile gazteen lan poltsa bat osatzea erabaki sortuko diren lanak banatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGK-k 2017an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea.
- Diseinatzaile gazteei aukerak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinua, maketazioa, etab. Euskarri hauek kartelak, esku-orriak, liburuxkak, txostenak.. izango dira.
- EGKren hainbat kontzeptu zabaltzeko irudi espezifikoak.

Ekintzak eta epeak

2017ko otsailean lan deialdi zabalduko da. Aurkezten diren diseinatzaile gazteei aurretik egin dituzten lanen portfolioa aurkezteko eskatuko zaie, horren araberako balorazioa egiteko. Aurkezten diren pertsonek edo enpresek, derrigorrean fakturatzeko gaitasuna izan behar dute. Horretaz gain, baloratuko da:

- 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz lan egiteko gaitasuna. Maila altua. EGK-k bere eguneroko lana bi hizkuntzetan egiten du eta
- EGKren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea.

EKINTZAK:

www.egk.eus
Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz
Autonomía, 44 behea
Bilbao
Andia, 11 nagusia
Donostia

Lan poltsaren prestaketa. (otsaila lehen astea)

Lan deialdiaren irekiera. (otsaila bigarren astea)

Lan deialdiaren erabakia (martxoa bigarren astea)

Diseinatzaileekin lan egin eta sortzen diren lanak banatu. (urte osoa)

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Hartzaileak

Bi hartzaile mota ikus daitezke:

- Batetik, lan egiteko aukera izango duten diseinatzaile gazteak
- Bestetik, behin diseinatzaileen lana ezagutarazten denean EGKra hurbildu daitezkeen gazteak eta hauek eratzen dituzten elkarteak. Atal honetan ere sar genitzake administrazioen edo hedabideen bitartez jabetu daitezkeen gazteak.

Jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak

